



una hora el tema: «Grandes encuentros con el Bajísimo. El Dios de las pequeñas cosas». Hay que decir que la reflexión fue una gozada, pues el ponente, el joven capuchino Hno. Víctor, demostró una espontaneidad y una maestría y una soltura enormes en el arte de dirigirse a un público tan numeroso y heterogéneo.

La segunda parte de la celebración tuvo lugar, como otros años, en la basílica donde en una celebración de 45 minutos oramos, cantamos, reflexionamos y pedimos por la paz y la solidaridad, siguiendo en ello el modelo y ejemplo de Francisco de Asís.

El encuentro terminó con la comida en el Hotel Hospedería para la mayoría; otros 55, los venidos de la parroquia de Gernika, fueron a comer a la casa de espiritualidad Asís topagunea.

SALLETARRAK EUSKAREN EGUNA ARANTZAZUN

Euskal Herriko Salletarrek Arantzazun ospatu dute aurten beren urteroko Euskararen Eguna, 37garren aldikoa. Zorionak beraiei!

Jose Manuel Agirrezabalaga antolatzaileak azaldu zuenek, Arantzazu aukeratu zuten jardunaldirako leku bereziki egokitzat aurten goan, duela 50 urte santutegian egin zuelako Euskaltzaindiak bere Biltzarra, Euskara Batuarren oinarriak ipini zituen; eta bertan burutu berria duela 50. urteurreneko Biltzarra ere –aldizkari honen aurreko zenbakian ikus daiteke horren kronika laburra–.

Berrogei bat lagun elkartu ziren, beraz, azaroaren 10ean, larunbatez Arantzazun. Paulo Agirrebaltzategik eman zien eguneko hitzal-



dia. Gaia: "Euskara Batuaren jaiotza-urteak (1950/1970), Arantzazutik begiratuta"; hogei urte haietako Arantzazuren loratze literario eta artistikoarekin parean ipini zituen urte beraietan gertaturiko Euskaltzaindiaren susperkundera eta euskararen eta euskal kulturaren pizkunde berria; giro eta ingurune horietan "jaino" omen zen Euskara Batua, 1968ko Arantzazuko Biltzarrean Euskaltzaindiak "bataiatu" omen zuena.

Asis Topagunean bertan anaiarteko Eukaristia ospatu ondoren, Basilikaren bisita gidatua izan zuten, Anjel Txabarrik lagunduta. Bazkari alaiarekin osatu zuten jardunaldia, soinu eta kantuen artean.

Paulo Agirrebaltzategi

ARANTZAZUKO 8. MIKOPOTEOA: "Perretxiko ugari guztion osasunaren oinarri"

Azaroaren 17an Arantzazuk, zortzigarren Mikopoteoaz gozatzeraz zectorren jendez gainezka egin zuen. Urtez urte ospatzen den jarduera hau Arantzazuko Adiskideek, Arantzazu Gaur Fundazioak eta Arantzazuko Parketxeak antolatzen dute eta oso harrera ona izan zuen aurtengoan ere. Hitzaldian zehar aretoa guztiz bete zen eta, gastronomia zirkuituan zehar, naturak eskaintzen dituen, eta ostalariek gustu handiz prestatzen dituzten, gutuziak dastatzera gerturatu ziren